

Itzultzaileak eragile soziokultural gisa Euskal Herrian

LAMIA FILALI-MOUNCEF LAZKANO

Testu hau *Humanitateak: arte, literatura eta kultura garaikideak* (UOC) ikasketetako Master Amaierako Lanerako egindako ikerketaren laburpen bat da, eta itzulpengintzaren soziologiaren barruan koka daiteke.

Ikerketaren hasieran, Itzulpengintzaren Teoriako zenbait lanetan azaleratutako bi auzi euskal testuinguruaren praktika errealarekin kontrastatu nahi ziren. Hasteko, Itzulpengintzaren Teoriako zenbait autorek *kulturarteko bitartekari* (*intercultural mediators*) gisa definitzen dituzte itzultzaileak (Katan, 2009, 2019; Pym, 2018 [1992]). Ikerketaren lehen abiapuntua izan zen jakitea ea Euskal Herriko testuinguruan itzultzaileak kulturarteko eragiletzat har ote daitezkeen, eta, hala balitz, noren artekoak, eta zer-nolako bitartekaritza kontsidera daitezkeen.

Ikerketaren bigarren abiapuntua itzultzailearen figura ikuspegi sozialetik aztertzea izan zen. Izan ere, soziologian egun dagoen *konstruktibismoaren* ikuspegiaren arabera, gizakiok gure inguruko gizartea *eraiki* egiten dugu, eta, era berean, gizartearen egiturek *eraiki* egiten gaituzte, gure ezaugarriak baldintzatzen dituzte eta (Aguilar Solano, 2020: 36). Gizartea bera ulertzeko gizakion arteko *harremanak* aztertzea oso emankorra dela ondorioztatu zen ikuspuntu hari esker 1980ko hamarkadatik aurrera, interakzioen bidez eraikitzen baititugu gizarte-egiturak (Corcuff, 2013, 26.or.).

Bi ideia teoriko horiek kontrastatzeko, itzultzaile profesionalak Euskal Herrian norekin egoten diren harremanetan azalartzea eta harreman horiek nolakoak diren deskribatzea zen ikerketaren helburu nagusia. Itzultzaile profesionalak, gizartearen parte diren aldetik, eragile sozialak lirateke ikuspegi konstruktibista batetik. Uste zabaldua da, ordea, euren lana jardun tekniko hutsa dela: hizkuntza batean dagoena beste batean jarri, testuak dioena kodez aldatu, besterik ez. Interakzioak identifikatu eta deskribatu, bi ikuspegi horiek, konstruktibista eta

linguistikoa, bateragarriak diren eta eguneroko praktikan zer forma hartzen duten jakitea zen helburu zabalagoa, hortaz.

Marko teorikoa: itzulpen-jardunaren alderdi soziala eta kulturala komunikazioaren ikuspegitik

Nola heldu Euskal Herriko itzulpen-jardunari, beraz, alderdi soziokulturalak azaleratu daitezkeen, ikuspegi linguistiko-testualek hainbesteko protagonismoa duten tradizio batean? Hasteko, diziplinarteko marko teoriko baten beharra agertu zen, ikerketa-galderek tradizio ezberdinetako ikuspuntuak harremanetan jartzen baitzituzten. Izan ere, «itzulpengintzaren teoriak bere gain hartzen dituen auziek bete-betean heltzen diote komunikazio-forma poliedrikoen azterketari, eta horrek diziplinen mugetatik haratago joatea eskatzen digu» (Wolf & Fukari, 2007, 3. or., nire itzulpena).¹

Itzulpengintzaren soziologiak, adibidez, halaxe egiten du. Helburua da *pertsonak* eta haien *ekintza behagarriak* aztertzea (Chesterman, 2007, 173.-174. or.). Ikuspuntu horretatik, itzulpengintzak sozialki erregulatzen den jarduera baten izaera hartzen du, eta horrek azken urteetako ikerketak ugaritu ditu. Besteak beste, Pierre Bourdieu, Bruno Latour, Bernard Lahire, Anthony Giddens edota Niklas Luhmann soziologiako ordezkari nagusien kontzeptualizazioak eta metodologiak Itzulpengintzaren Teoriako aztergaietan aplikatzeko helburua dute (Wolf & Fukari, 2007). Ikerketa honen kasuan, soziologiaren barruan hautaturiko ikuspuntu teorikoa mikrosoziologiari dagokio, eguneroko interakzioak baitira behatu nahi diren ekintzak, eta ez zuzenean egitura makroak; konstruktibismoaren ikuspuntutik, esan bezala, interakzio horietan oinarrituta, egiturazko faktoreez hausnartu daiteke.

Mikrosoziologia –alegia, interakzioak aztertzea– aproposa izan daiteke itzulpengintza aztertzeko; izan ere, Itzulpengintzaren Teorian *komunikazio-ekintza* gisa definitu izan da, George Steinerren 1975eko *After Babel: Aspects of Language and Translation* lanaz geroztik (Katan, 2009, 74. or.). Azken hogeita hamar urteetan agertu diren zenbait ereduk baieztatzen dute edozein testu dela munduaren parte eta, funtsean, testu oro dagoela *komunikazio* deitzen dugun etengabeko fluxu dinamikoan txertatuta (Cruces Colado *et al.*, 2003, 47. or.). Eta komunikazioa pertsonen artean gertatzen da, interakzio soziala da. Testua eta komunikazioa harremanetan jartzen diren unetik, hizkuntzaren ikuspegi sozialetik abiatzen diren orientazio teorikoak kontuan hartzen hasten gara. Hizkuntzalaritzaren barruan, soziolinguistika da horietako bat, baina badira traza antropologikoagoak dituztenak ere; komunikazioaren etnografia, esate baterako (Cruces Colado *et al.*, 2003, 52. or.).

1. «The multifaceted forms of communication which shape the issues undertaken within translation studies call for us to go beyond disciplinary boundaries».

Pertsonak eta haien ekintzak aztertzeko, etnografiaren abiapuntu teorikoa egokia suertatu zen, zehazki Komunikazioaren Etnografia. 1972an, Hymesek edozein komunikazio-ekintzatan agertzen diren elementuak antolatu zituen, SPEAKING ingelesezko sigla osatzen duten ereduaren bidez: egoera, parte-hartzaileak, helburuak, ekintzen sekuentzia, tonalitatea, kanala, arauak eta generoa; alegia, *situation*, *participants*, *ends*, *act sequences*, *key*, *instrumentalities*, *norms* eta *genre* (Calsamiglia & Tusón, 1999, 4.-5. or.). Lehen biak izan ziren aztergai, hots, itzultzeko ekintza komunikatiboaren *parte-hartzaileak* eta haien inguruko egoera edo *testuingurua*, beharrezkoak baitira bi elementu horiek ikerketaren helburua erdiesteko: itzultzaileen eta beste eragile batzuen arteko harremanak deskribatzea eta ulertzea, bereziki bitartekaritza-lanei dagokienez.

Komunikazioaren etnografiako abiapuntu teoriko horretaz gain, Itzulpengintzaren Teoriko zenbait kontzeptu funtsezkoak izan ziren analisirako, bai aipatutako kulturarteko bitartekariaren ideia (Katan, 2009, 2019; Pym, 2018), bai testutik testuingurura begirada altxatzean ikus daitezkeen interakzioak azaltzeko ideiak. Alegia, Pymek itzulpenaz ematen duen definizioa (2018) eta *komunikazio-rolak*. Izan ere, egungoa bezalako gizarte batean, itzulpengintza profesionalak agerian uzten du mezuaren katea konplexuagoa dela igorle-hartzaile konbinazioa baino, eta itzulpena talde-lana izaten dela askotan.

Erving Goffman (1975) mikrosoziologoa aitzindari izan zen rol horiek azaltzen, bere interakzionismo sinbolikoaren bidez, eta Mossoprek (2009) eta Katanek (2009, 2019) itzulpengintzaren testuinguruan aplikatu zituzten. Katanek, pertsona konkretuetatik haratago, gizataldeak ere kontuan hartzen ditu: kulturak eta gizartea (2019). Egilearen ustez, itzultzaileak ez du soilik konprobatu behar igorlea zer hartzailearekin ari den, baizik eta zer taldetasun edo mundu-ikuskerarekin ari den, maila sozial zein kulturalean ere komunikazioa bermatzeko (2019).

Halako kontzeptuak ohikoak izaten dira Itzulpengintzaren Teorian, egilea, hartzailea, jatorri-testua edota jatorri-kultura nahiz xede-testua edota xede-kultura izendapenak erabilia. Lan honetan erabilitako analisian, ordea, komunikazioaren ikuspuntutik izendatuta ageri dira, aipatutako hiru autoreen proposamenak uztartuta. Rolak garrantzitsuak direla esan daiteke; izan ere, pertsonen arteko harremanak baldintzatzen dituzte, eta pertsona berak rol ezberdina har dezake kasuan-kasuan.

Metodologia: elkarrizketak bederatzi itzultzaile profesionali

Abiapuntua etnografikoa izan arren, ez zen zuzeneko behaketarik egin, eta profesionalen esperimentatetik bildu dira datuak. Hala, azterketa kualitatibo xume bat osatu zen, 2020ko abenduan bederatzi itzultzaile profesionali egindako elkarrizketa erdiegituratuetan lortutako datuekin.

Batez besteko adina	46 urte. Gazteenak 25, nagusienak 62.
Lanpostuaren kokalekua	Araba 1 Bizkaia 5 Gipuzkoa 1 Iparraldea 1 Nafarroa 1
Sektorea eta modalitatea	Publikoa 2 (itzultzaileak eta kudeaketa-arduradunak) Pribatua 7 <ul style="list-style-type: none"> • 4 itzultzaile autonomo (1 zinpekoa) • 1 soldatapeko langile • 1 enpresa txiki bateko nagusi • 1 noizbehinkako literatur itzultzailea
Generoa	Gizonezkoak 6, emakumezkoak 3, ez-binarioak 0
Lan-hizkuntzak	Euskara, ingelesa, gaztelania, arabiera, alemana, frantsesa, italiera

1. taula. Elkarrizketatutako itzultzaileak.

Aukeraketa-irizpide nagusiak adina, lurraldea eta sektorea izan ziren, ahal zen espektro handiena islatu ahal izateko, baina baita eskuragarritasuna ere, haiekin kontaktuan jarri beharra zegoelako. Halaber, hizkuntza ezberdinekin lan egin zezatela ere irizpide garrantzitsua izan zen, kulturarteko harremanak modu argiagoan azaleratuko zirelakoan. Elkarrizketatu gehienek gaztelaniatik, ingelesetik eta frantsesetik itzuli ohi dute euskarara edo alderantziz, eta haietako beste bik gaztelaniatik arabierara edo alderantziz. Hala ere, zenbait elkarrizketatuk edota euren ardurapeko itzultzaileek beste hizkuntza batzuekin ere lan egiten dute; besteak beste, italiera, alemana, errumaniera, errusiera, portugesa, urduera, farsiera, poloniera, etab.

Lanbideari dagokionez, gehienak itzultzaileak dira ogibidez, baina badira ohiko lanetik kanpo jarduten dutenak ere, dela kulturarteko bitartekaritzaren alorrean, dela literaturaren alorrean. Izan ere, ahalik eta testuinguru ezberdinenak ikertu nahi ziren, egitura soziokulturalak azaleratu zitezten. Itzuli ohi dituzten testuei buruz galdetuta, mota hauetakoak aipatu zituzten: administraziokoak, juridikoak, politikoak, hezkuntza- eta osasun-arlokoak, sozioekonomikoak, teknikoak, kulturalak, ikus-entzunezkoak, literarioak, kazetaritzakoak eta pertsonalak (Whatsapp mezuak epaiketa-froga gisa, adibidez).

Datuen analisirako, itzultzaileekiko elkarrizketak transkribatu eta diskurtsoaren analisia egitea hautatu zen metodo gisa. Ondorengo ataletan, elkarrizketa haietan bildutako datuen analisia ageri da, laburtuta. Lehenik, komunikazio-rolak aplikatu eta parte-hartzaileak aurkeztuko dira. Bigarrenik, *enkargu-egileekiko* harremanetan identifikaturiko hiru jarrera-motak azalduko dira, eta, azkenik, *hartzailerekiko* harremanetan identifikaturiko interakzio motak eta bitartekaritza-estrategiak.

Nork abiarazten du itzulpena eta norentzat?

Azpiko taulan, elkarrizketatuek aipaturiko pertsonak zenbait rol komunikatiboren arabera sailkaturik ageri dira.

Komunikazio-rol mota	Rola zertan den	Parte-hartzaile konkretu posibleen adibideak
Komunikazioaren abiarazlea (igorlea)	Zerbait komunikatu nahi du, eta, beraz, komunikazio-ekintza bat abiarazten du. «Nork esan du itzulpenean agertzen den hori?» galdera eginez jakiten da. Komunikatzen den horren ardura bere gain hartzen du.	<ul style="list-style-type: none"> • Enkargu-egileak edota bezeroak, interesa itzulitako mezua igortzea denean • Egilea (pertsona / taldea / entitatea)
1. taldeko hartzaileak: espezialistak (igorlekideak)	Testuaren azken bertsioari euren aditu-ekarpena egiten diote, eta beraz, abiarazten laguntzen dute, talde-lanean sarri. Horretarako, lehenik testua jaso eta irakurri egiten dute, eta horregatik dira hartzaileak, nahiz eta igortzeko prozesuan parte hartu. Mezua ez da eurentzat.	<ul style="list-style-type: none"> • Itzultzaileak • Berrikusle-zuzentzaileak • Maketatzaileak, diseinatzaile grafikoak • Hizkuntzaz aparteko teknikariak, komertzialak • Enkargu-egilea edota egilea testuari aldaketak egitean
2. taldeko hartzaileak: nahi gabeko hartzaileak	Itzulpena pertsonaz pertsona mugitzen laguntzen dute. Testua irakurtzen duten heinean hartzaile bihurtzen dira. Mezua ez da eurentzat.	<ul style="list-style-type: none"> • «Mezulariak», «Berbideratzaileak» • Enkargu-egileak edo beste batzuk mezulari lanetan
3. taldeko hartzaileak: azken erabiltzaileak	Azken erabiltzaileak. Mezua eurentzat da, eta testuaren azken bertsioa irakurtzen dute.	<ul style="list-style-type: none"> • Azken erabiltzaileak, taldeak zein norbanakoak • Enkargu-egile edota bezeroak, interesa itzulitako mezua jasotzea denean eta ez igortzea
4. taldeko hartzaileak: taldetasunak	Erabiltzaileez gaindikoa. Azken erabiltzaile bakoitzaren taldetasunak edo mundu-ikuskerak.	<ul style="list-style-type: none"> • Kulturak • Espazio sozialak

2. taula. Komunikazio-ekintzaren parte-hartzaileak itzultzailearen ikuspuntutik. Goffman (1975), Mossop (2009) eta Katanen (2019) rol komunikatiboen moldaketa.

Taulan ageri diren parte-hartzaile mota horiek guztiak itzulpenen komunikazio-fenomenoaren osagai dira, eta SPEAKING ereduaren P letra osatzen dute (*participants*), batik

bat eremu profesionalaz ari garelarik. Beste batzuk ere egon daitezke, kasuistikaren arabera. Elkarrizketatuek aipatu zituzten pertsona eta talde jakinak rol orokorrago horien barruan sailka daitezke, analisisan egin zen bezala.

Motorrerekiko harremana: itzultzaileak enkargu-egileekin harremanetan

Enkargu-egileak normalean bezeroak izaten dira, baina izan daitezke entitate bereko beste sail bateko lankideak ere. Horien artean sei mota identifikatu ziren: partikularrak (etorkinak, nazioarteko ikasleak, atzerrira bizitzera doazenak, mediku bat eta inbertitzaile bat), itzulpen-agentziak, ETEak (zinema-estudioa, argitaletxea), enpresa handiak (banka-aseguru arloko enpresak, osasun-arloko enpresak), erakunde publikoak (EUDEL, udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren sailak, Eusko Legebiltzarra, Euskal Hirigune Elkargoa, museoak) eta irabazi asmorik gabeko entitate soziokulturalak (kultur elkarteak, etorkinen elkarteak, zinema-jaialdiak eta arteguneak).

Bigarren taulako lehen bi ilaretan, igorlea eta espezialistak ikus daitezke. Bien arteko ezberdintasuna da mezuaren ardura nor hartzen duen: igorlearena da esaten denaren ardura, baina espezialista bat behar du, mezu hori adierazteko moduez *erabakiak har ditzan beraren orde* (Goffman, 1975). Taulan, espezialista moduan daude itzultzaileak kokatuta, baina, enkargu-egileekin interakzioan erabiltzen duten diskurtsoaren eta beren lanari dagozkion egiturazko faktoreen arabera, praktikan rol espezialista horretatik urrunago edo hurbilago kokatuko dira. Jarraian, diskurtsoek eta egiturazko faktoreek itzultzaileen komunikazio-rolan duten eragina azalduko da.

Hiru diskurtso: kode-aldatzailea, negoziatzailea, igorlekide aitortua

Elkarrizketatutako itzultzaileak enkargu-egileekin dituzten harremanak azaltzen ari zirelarik, hiru diskurtso mota agertu ziren, kode-aldatzailea, negoziatzailea eta igorlekide aitortua izenda genitzakeenak. Hiru jarrera, itzultzaileak mezuarekiko hartzen duen rolaen arabera.

Lehenengo jarreran, itzultzaileak dio bera tresna bat baizik ez dela; hitz guztiak aldeztu aurretik daudela hautatuta, eta, beraz, beraren lana hitz horiek transformatzea dela. Diskurtso mota horri kode-aldatzailea deitu geniezaioke, eta bat dator Lawrence Venutik aipatu izan duen itzultzailearen figuraren ikusezintasunaren diskurtsoarekin (1992). Honela dio:

Es una operación mecánica casi. Y... sobre todo cuando es un documento de informe médico... No tienes que pensar nada. Tienes que poner lo que hay. [...] No estoy haciendo, ni soy juez, ni soy abogado, ni soy este ni soy otro. Yo solamente esto: un instrumento que se utiliza para colaborar con. [...] Cuando te lo trae una entidad, una institución [...], que trabaja con usuarios, sus propios usuarios... es su propia relación. Ya está escogido todo. Están escogidas las palabras, el texto, la manera, la imagen y todo esto. Lo que necesito hacer yo, el trabajo, y se cobra por ello, es simplemente transformar estas palabras en el idioma que lo pueda entender otro.

Diskurtso hori gailentzen den kasuetan, itzultzailea igorlekidetzatik urrutien kokatzen da, mezuaren ardura hartzetik urrutiago baitago. Mezuaren ardura hartzetik hurbilen, berriz, igorlekide aitortua litzateke itzultzailea. Elkarrizketatu batek enkargu-egile bakar batekin izandako esperientzia anekdotiko batean agertu zen. Kasu hartan, amaitutako testu bat itzuli beharrean, itzulpenaren ostean aldaketak egin ziren jatorri-testuan, eta amaieran bi testu elebakar sortu ziren; hala, bi prozesuek elkar elikatu zuten. Normalean, hori ez da itzultzailearen eskumenen barruan kokatzen, enkargu-egilearenean baizik.

Bien artean koka genezake elkarrizketetan agertu zen diskurtsorik ohikoena, beharra ikusten zuten kasuetan: negoziatzailea. Jarrera honetan, kode-aldatzailean ez bezala, itzultzaileak komunikazio-egoeran agente moduan daudela aitortzen da. Diskurtso horrek bat egiten du Pymek (2018) azaldutakoarekin: itzultzaileek testuaren gaineko erabakiak hartzeko duten *autoritate*an bilakaera historiko bat egon da, eta, zenbat eta profesionalizazio-maila handiagoa eta, beraz, zenbat eta ikusgarriagoa euren aditu-ekarpena, orduan eta autoritate handiagoa izango dute:

To the extent that translators have slowly transformed their anonymity into a professional identity, they have been able partly to develop professional ethics. But can it simply be assumed that all individual translators have become equally professional? Have they all gained sufficient authority to develop their own ethics? (Pym, 2018, 159. or. [lehen ed. 1992]).

Izan ere, Pymek dioenez, itzulpenak berak oinarrian printzipio asimetrikoak ditu: «Authors and translators are by definition not equal; text flows between senders and receivers are rarely balanced or reciprocal; the right to information is not automatically a universal blessing» (2018, 173. or.). Hala, elkarrizketatu gehienek, enkargu-egileekiko harremanetan, enkarguaren baldintzak negoziatu behar izan dituzte inoiz. Arkitekto batek eraikin baten diseinu egokiena zein den erabakitzen duen bezalaxe, itzultzaileek ere testuari dagozkionak hautatzen eta egokitzen dituzte, testuok zentzu komunikatibo batean arrakastatsuak izan daitezten. Halako erabakiak hartu ahal izateko, ordea, badaude alde aurretiko baldintza batzuk, hala nola horretarako *eskumena* edo *denbora* eta *baliabide* nahikoak izatea, elkarrizketatuek ziotenez.

Alegia, diskurtso negoziatzailea agertu zuten itzultzaileek, ahal izan duten heinean enkargu-egilearekin testuaren kalitatea bermatzeko baliabide materialak negoziatu izan dituzte, eta, gainerakoan, adierazi didate beharrezkoak zirela: denbora edota ordainsaria nahikoak izatea; enkargua ulertzeko eta egoki itzultzeko testuinguruari buruzko informazioaren beharra; baliabide teknikoak (esaterako, lan-hizkuntzako hiztegi espezializatuak); beste lankide batzuen laguntza, hala nola hizkuntza-adituak (zuzentzaileak...) edo beste alor batekoak (marketinekoak, zientzia-arloko adituak...) eta abar.

Halakoak eskatzeko orduan eman izan duten arrazoi nagusia testuaren kalitatea zaindu ahal izatea izan da: itzultzaileek gutxieneko kalitatea duen testu bat entregatu nahi dute, «lanbidearen deontologia-kode minimoa» betetzen duena eta «azken erabiltzaileek osoki ulertu ahalko dutena», baita azken erabiltzaileek «testua haiekin doala senti dezaten» ere, zenbait elkarrizke-

tatuk adierazi bezala. Elkarrizketatu horiek testuak jendearentzat probetxugarriak izan daitezela nahi dute, uste baitute hori dela itzultzaile batengandik espero den jarrera *etikoa*.

Egiturazko faktoreak: egonkortasun ekonomikoa eta egitura administratibo-politikoak

Elkarrizketatuen kasuan, euren testuaren gaineko erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez, diskurtsoek ez ezik, egiturazko faktoreek ere ezberdintasunak eragiten dituzte. Alegia, Pymen (2018) ideien ikuspuntutik, guztien kasuan ez da profesionalizazio-, eta, beraz, autoritate-maila bera ikusten. Ezberdintasun horiek egiturazko faktoreekin lotuta daudela esan genezake, eta gutxienez bi detektatu ahal izan ziren.

Lehen faktorea elkarrizketatu bakoitzaren egonkortasun ekonomikoa dela esan daiteke. Oro har, sektore publikoko langileek egonkortasun-maila handia dute, eta horrek berekin dakar negoziazio arrakastatsuagoak lortzeko ahalmena. Adibide honetan, esate baterako, enkarguari ezetz esatea erabaki zuen itzultzaileak:

Gainera, nolabait esateko, gure duintasuna edo profesionaltasuna ere hor sartuta dago. Zu sartzen bazara aplikazio batean, sartzen bazara web orri batean eta euskarazko bertsioari ez baldin badago nondik heldu, eta zu izan bazara itzultzailea, horrek uzten zaitu, hau nik egin dut eta... Baina nik egin nuenean ez nekien. Ezin nuen ikusi, ez neukan informazio nahikorik itzulpena egiteko. Orduan orain informazio hori eskatu egiten dugu. Ez badigute bidaltzen, ez ditugu itzultzen.

Enpresa-langileek eta itzultzaile autonomo gehienek, berriz, ez dute arrakastarik izan edo ez dira negoziatzen saiatu, itzulitako testuaren kalitatean hutsuneren bat detektatu arren; edo gaitzake bat eduki dute euren lanaldiaren iraupenean eta osasun mentalean; edo ordainsaririk gabeko lanak entregatu dituzte (adibidez, publizitate-sorkuntza, kobratu gabe), adierazi zidatenez.

Eta batez ere badakigu hala egin dela epeen estualdiagatik, ezta? Eta estualdi horrek berez dakarren kalitate... itzulpenaren kalitate eskasagatik edo arazoagatik, ezta? [...] Aipatu dut lana, gizarte mota, zera, ekonomia mota. Ze, ekonomia motak horretara bideratzen gaitu. Ze, azken finean horretatik bizi bagara... ba horrela eskatzen digute. Gero ere, hizkuntza gutxiagotua izatea. [...] Eta orduan baterako balio duena, besterako ere, horrela bere horretan, besterik gabe itzulpena eginda, balio izatea. Baina euskararen kasuan sarritan ez da hori gertatzen. Eta orduan berez ez dago ezarrita, enpresak berak, hornitzaileak, publizitate agentzia hornitzaileak hori egin behar izatea. Printzipioz zuk itzuli egiten duzu baina askotan gertatu dena izan da asmatu behar izan dugula leloa, publizitate kanpainaren muina eta muinarekin batera, lelo nagusia, edo hainbat lelo nagusi, asmatu behar izan ditugu. Beste modu batean, edo zerrenda bat ipini eta aukeran ipini, eta hor badago lan oso bat. Eta ordainduta ez dagoena. Aitortuta ez dago, eta ezta ordainduta ere.

Alabaina, Iparraldeko itzultzaileak, nahiz eta autonomia izan, egonkortasun ekonomiko handia zuen, eta enkarguak errefusatzeko moduan zegoen. Hori azaltzeko arrazoietako bat merkatua izan daiteke, berak azaldu zidanez: Iparraldeko hizkeretara itzultzeko gai den itzul-

tzaile gutxiago dago, eta, beraz, badirudi negoziatzeko tarte handiagoa duela, eta enkarguak errefusa ditzake:

Orduan, agentziarik ez. Eskaerak ukan ditut, agentzia batzuk. Hegoaldetik, egia erran. Eta ez ditut... ez zaizkit interesatzen. Hainbat arrazoiengatik. Aski gordinki esanen dizut: oso gaizki ordaintzen dute. Hara, bat. Bigarrenik, hara, Hegoaldekoak izan dira gehien-gehienak, eta eskatzen zidaten, euskaratik frantsesera egitea. [...] Nik kontsideratzen dut ene euskarazko ekoizpena ez dela, ez zaiola egoki Hegoaldeko [...] hara, ez dela Hegoaldeko euskara. Nahiz eta batua egiten dudan, da batua... Iparraldeko erara, edo moldea, ez? [...] Eta bestalde, nahiko bezero ditut, hemen, Iparraldean, hala ere orain ez daukat arazorik lana topatzeko. [...] Baina nire aterabidea da eta suerte hori badut, pixka bat atipikoa naiz. [...] gu gutxi gira, [...] eta beraz, hara, bezeroak baditut, eta orduan holako testuak ahal badut errefusatzen ditut.

Bigarren egiturazko faktorea egitura administratiboa eta politikoa izan da, hizkuntzei estatus ezberdina esleitu eta hizkuntza-politika ezberdinak ezartzea baitakar, eta horrek zilegitasun, baliabide eta babes-maila ezberdinak ematen dizkio hizkuntza bakoitzera egindako itzulpenari. Izan ere, zuzenean sektore publikoaren bidez –eta zeharka sektore pribatuan ere bai–, egoera soziolinguistiko orokorrak hizkuntza praktketan eta prestigioan eragiten du. Horren harira, elkarrizketatu batek zera zioen:

Ez, nik uste dut orokorra dela. Eta badela... arrazoa da hizkuntzen bilakaera soziolinguistikoa eta egoera soziopolitikoa. Euskararen estatusa oso eskasa zen orain dela mende erdia. Euskara debekatuta zegoen. Orduan, bat-batean nagusitzat jotzen zen hizkuntzaren parean ipintzea maila gutzietan ezinezkoa da. Ezinezkoa da ez badago ekimen orokorrik eta ez badago ekimen orokor horrekin bat egiten duen multzo soziolinguistiko ahaldundu bat. Ezta? Eta hori da falta izan dena, eta orduan aldaketa hori apurka-apurka, oso astiro dator.

Alde horretatik, itzultzea erabakitzeak berak ere zerikusi zuzena du egiturazko faktore ekonomiko eta politiko-administratiboekin, eta eragin handia izan dezake hiztunek mezuarekiko duten harremanean. Kultur bitartekaritzara dedikatzen den itzultzaileak argi esan zuen:

[L]es sorprendes. Yo creo que en primer lugar visibilizas que esta persona... ¿no? Cada persona es orgullosa de su propia lengua, imagínate los vascos con el euskera, lo mismo las personas que vienen. Hay un wolof, hay un punjabi, hay un urdu, hay un árabe dialectal, un árabe coránico, hay muchas ¿no? [...]. Muchas veces nos vienen demandas sobre la poca participación de las personas inmigradas, por ejemplo, en ámbitos culturales, aunque son gratuitos. En ámbitos deportivos. Solamente a veces ponemos un cartel, es una experiencia, lo hemos hecho, en el polideportivo de Portugaleta, que no iba ningún inmigrante, hemos puesto diferentes lenguas, *ongi etorri*, imagínate. Se han animado, vienen a ver el cartel, me siento identificado, me acerco, es lo mío. Cuentan conmigo. ¿Me explico? Ese tipo de cosas.

Esan daiteke egiturazko faktore horiek komunikazio-prozesuaren parte-hartzaileen artean botere-harremanak eragiten dituztela, testu bat itzuli behar dela erabakitzen den unetik amaierako bertsioa azken erabiltzailearengaino iristen den arte. Egiturazko faktoreen eragina azal-

tzeko, Ingrid Pillerren hizkuntza-justiziaren eta hizkuntza-pribilegioaren ideiak oso baliagarri suerta daitezke (2016). Pillerrek dioenez, hizkuntza bakoitzari eskaintzen zaizkion baliabide materialek hiztunen arteko botere-harremanak islatzen dituzte. Pillerrek hizkuntzen *estratifikazio soziala* dagoela dio, hau da, hizkuntza bakoitzari balio ezberdina ematen zaiola, eta horrek taldeen arteko desorekak sortzen dituela (2016, 14. or.). Alde horretatik, itzultzaileek baliabide materialak negoziatu behar izaten ditu testuaren kalitatea bermatzeko, eta horrek enkargu-egileen eta itzulpenen hartzaileen arteko botere-harremanak islatuko lituzke, beraz.

Idea hori islatzeko, esanguratsutzat har litezke honako hauek: batetik, euskaraz Mihiluze teleaioak urteetan itzulpen makurrak umorez hartzeari dedikatu zion atala («Zazpikiak»), eta bestetik, elkarrizketatu batek oposizioen itzulpenei buruz zioena. Izan ere, testuak gaztelaniaz prestatzen dituzte adituak, eta ondoren itzulpen-zerbitzura bidaltzen dira, han itzulpengintzan adituak bai baina edukian aditu ez direnek itzul ditzaten. Hartzaileen eskubideak erabat bermatuta ez izatearen ardurak eta beldurrak, ordea, dinamikaren prozedura hobetzeko bere esku zegoena egitera bultzatu zuen elkarrizketatu bat:

Eta hor bai, hartzailearengan pentsatzen, esaten duzu: prozedura hau ezin da horrela izan, ze ni ari naiz hartzailea izango den horri kalte egiten! Orduan... hor ere ba gauzak aldatu dira, ez? Azterketa bat itzultzeko esaten dizutenean, eduki behar duzu aukera azterketa egin duenarekin hitz egiteko, zailantza guztiak argitzeko, eta abar. Azkenean, azterketa euskaraz egingo duenari kalterik ez egiteko.

Izan ere, hizkuntza hegemonikoetan itzultitako testuak dioena komunikatzea, normalean, igorleari interesatzen zaio. Hizkuntza gutxituetan, ordea, komunikazioaren interesa ez da beti igorlearena, baizik eta, maiz, azken erabiltzaileena: jatorrizko testua ulertzen badute ere (hizkuntza hegemonikoan dagoelako), informazioa euren hizkuntzan jaso nahi dute. Horrek esan nahi du hiztunen arteko botere-harremanak egiturazko bi faktore horien islatzat har ditzakegula, eta garrantzia dutela itzultzaileen negoziazio-estrategiak ulertzeko orduan. Halaxe adierazi zuten euskarara itzultzen duten elkarrizketatuek, baina baita kultur bitartekari lanetan aritzen denak ere, normalean etorkinei zuzendutako testuak itzultzen ditu eta:

Yo prefiero tener más tiempo para dar algo más adecuado. Cuidamos muchísimo esos aspectos. Muchas veces no nos entienden. [...] O te dicen: no, no, eso es para pasado mañana. No. ¿Cuánto os ha costado para hacer ese trabajo? Un año y pico. ¿Y la traducción en 24 horas? No es así. Es una realidad. No, la traducción necesita 12 días mínimo. ¿Cómo? Sí. ¿Y me puedes explicar por qué? Sí. Lo cojo yo, lo adecuó yo, te lo puedo devolver si no entiendo algo, en qué sentido va eso, en qué sentido van muchas cosas. [...] Para que la gente lo aproveche y lo entienda.

Esan daiteke, beraz, enkargu-egilearen eta azken erabiltzaileen arteko testuaren lekualdatze-prozesuan itzultzaileek *esku hartzen* dutela baliabide material horiek eskatuz, askotan itzulpenen azken erabiltzaile diren talde soziokulturalen oinarritzko eskubideen mesedetan.

Baiezta genezake, hortaz, hizkuntzek babes instituzional txikia dutenean edota zuzenean halakorik ez dutenean eta euren egoera ekonomikoak aukera ematen dienean, itzultzaileek

komunikazioaren eta hartzaileen eskubideen arduraren handiagoa hartzen dutela, haiek direlako hein batean itzulpenen komunikagarritasunaren eta kalitatearen zaindari, zuzentzaileekin batera, eta ez igorleak edota enkargu-egileak. Ez badute baliabide gehiagorik eskatzen etika profesionalaren babespean, gerta deiteke testuaren kalitatea ez iristea gutxieneko batzuetara. Alde horretatik, euren esku-hartzeak itzulpenen azken erabiltzaileen informazio- eta hizkuntza-eskubideak bermatzea ekar lezake berekin.

Hartzaileekiko harremana: itzultzaileak irakurleekin harremanetan

Elkarrizketatutako itzultzaileek hurbiltasun-maila ezberdinak izan dituzte hartzaileekin, eta, beraz, interakzioak zuzenagoak edo zeharkakoagoak izan dira, egoeraren arabera. Batzuetan, zuzeneko harremana izan dute, eta zehazki ezagutu dituzte euren itzulpenaren hartzaileak; beste batzuetan ez dute zuzeneko harremanik izan, baina jakin dute nork irakurriko zuen itzulpena, eta, azkeneko kasuetan, ez dute izan zuzeneko harremanik eta ez dute jakin nork irakurriko zuen. Azken kasu horietan, ezagutza-hutsunea gorabehera, jakin ez dutena *ondorioztatu* egin dute, bi informazio-iturri erabilita. Batetik, testua bera; bestetik, pilatutako euren ezagutza propioak (Bourdieuaren terminologian, *habitus*).

Hona elkarrizketatuek aipaturiko hartzaile konkretuak, rola aplikatuta:

Hartzaileen rol motak (Mossop, 2009)	Elkarrizketatuek aipaturiko norbanako edo talde jakinak
Berrikusleak Itzulpena itzulpen gisa irakurtzen dute. Itzulpen-prozesua berrikusten dute.	Taldeko beste kide batzuk (enpresakoak, entitatekoak), itzulpen-agentziako zuzentzailea, Legebiltzarreko zuzentzailea, itzultzaile elkarrizketatuak berak halako lanak egiten.
Zuzentzaileak, diseinatzaile grafikoak, maketatzailak Ez dute itzulpena itzulpen gisa irakurtzen.	Elkarrizketatuek ez dituzte bereizi berrikusleak eta zuzentzaileak: figura hori egon den kasuetan, bi funtzioak bete izan ditu.
Adituak (teknikariak) , marketineko arduradunak, komertzialak... Funtzio/edukiaren gaineko aldaketak eskatu ahal dizkiotenean itzultzaileari (edo zuzenean aldatu), marketin edota euskaraplan baten beharreatatik, besteak beste.	Entitate barruko arlo bakoitzeko teknikariak: finantza-arlokoa, marketinekoa, kultur programaziokoa, euskara teknikaria... Elkarrizketatuen kasuan, inork aldaketak eskatuz gero, igorle roldun enkargu-egileak izan dira.
Enkargu-egilea , aldaketak eskatu edo egiten dituenean.	
Mezulariak (berbideratze-lanak)	Irakurri bai, baina aldaketarik eskatu edo egiten ez dutenean: enpresetako langileak, zinpeko itzulpenak behar dituzten enkargu-egileak (nazioarteko ikasleak, nazionalitate eskaerak...).

Hartzaileen rol motak (Mossop, 2009)	Elkarrizketatuek aipaturiko norbanako edo talde jakinak
Jatorrizko testuaren egilea , itzulpena irakurtzean; baiezkoa eman behar duenean, adibidez.	Ez dute halakorik aipatu bere horretan, baina bigarren lerroan agertzen diren teknikari asko egileak izango dira segur aski.
Azken erabiltzailea . Norbanakoak eta taldeak (kategoria sozialak), testuaren azken bertsoia irakurtzen dute. Mezua eurentzat da.	Partikularrak: mediku bat, euskarazko abestien zale bat... «Publiko orokorra» Langileak: epaitegietako langileak, osasun-langileak, aduanetako langileak, merkataritza-erregistrokoak, funtzionarioak... «Desde extranjería hasta Seguridad Social, a hospitales, a policías... a todo, juzgados... cada uno donde necesita sus documentos. Hay de todo». Lurraldeak: Nafarroako herritarrak, Bilbo Handikoak, herrietakoak, diasporakoak... Biztanleria-segmentuak: kontsumitzaileak, gazteak, sare sozialen erabiltzaileak, ikasleen familiak, haurrak eta gazteak, poesia-irakurleak, etorkinak, museoetako bisitariak...

3. taula. Elkarrizketatuen itzulpenen hartzaileak, komunikazio-rolaren arabera.

Edozein kasutan, baiezta genezake gertatzen dela itzultzailearen eta hartzaileen arteko interakzioa, zuzenean edo zeharka. Izan ere, itzultzaileek, edozein idazlek bezala, harreman bat eraikitzen dute beren testuaren irakurletzat dituzten taldeekin: «Even if we have no idea who the reader might be, we create one» (Katan, 2019, 7. or.). Halakoetan, aldez aurreko ezagutzek ez ezik talde soziokulturalen gaineko aurreiritziek ere eragina izan dezaketela ikusi genuen; adibidez, pentsatzea hitz bat ez dutela ulertuko.

Irakurleekiko harremana badagoela abiapuntutzat harturik, ikerketaren xedea izan da itzultzaileek kode-aldatzaile roletik haratago beste ezertan esku hartzen ote duten jakitea, Mossopen ideiak kontrastatzeko (2009). Hark dioenez, itzultzaileek *erabiltzen dituzten hitzak hautatzen dituzte*, eta horrek berekin dakar *ezberdin itzultzen dutela irakurlearen arabera*. Ez hori bakarrik, Mossoprek dioenez, komunikazio-egoeraren parte-hartzaileen komunikazio-interesen artean lehentasun-mailak ere ezarri ahal dituzte itzultzaileek.

The translator may know that his or her work will be read by some combination of the following: a reviser, a proofreader, a subject-matter expert, the commissioner, the source-text writer, and the final users. But it may not be worth the effort, or even possible, to word the text in such a way as to please all these receptors. The translator may for example be aware that the source-text author

is fussy about having his every nuance captured, but that may not be compatible with the commissioner's desire for speed, and the translator may decide that since the final users are reading the translation for information only, small nuances are irrelevant. Too bad for the source-text author. (Mossop, 2009).

Ikuspuntu horren arabera, esan genezake itzultzaileak ez duela alde aurretik ezarritako harreman bat erreproduzitzen, interakzio berri bat eraikitzen baizik, parte-hartzaile berriak agertzen baitira, eta interes edo behar komunikatiboen arabera erabakiak hartzen ditu testua formulatzeko orduan, batik bat interesek talka egiten dutenean; hain zuzen, Mossopek aipuan dioen bezala (2009).

Zenbait itzultzailek, beraz, enkargu-egileei baliabideak eskatzen dizkiete testuaren kalitatea bermatzeko. Datozen atalotan, testuaren kalitatea kontuan hartze horretan besteak beste zer alderdi egon daitezkeen planteatzeko saiakera bat egin da, elkarrizketatuen adierazpenak bildu ostean.

Informazioa nola aurkeztu, edo diskurtsoaren maila guztien kudeaketa

Itzultzaileek hartzailearen arabera erabaki dezakete informazioa nola aurkeztuko duten, hitz batzuk hautatuta hartzaile batzuek elkarrizketaren parte direla sentituko baitute, eta beste batzuk hautatuta, berriz, ez. Era berean, enkargu-egileari komunikazio-estrategia aldatzea proposa diezaioke, jatorrizko testutik itzulpena. Izan ere, testua azken erabiltzaileen komunikazio-beharretara egokitzeko aukera ematen du hizkuntza bakoitzak daukan –edo etorkizunean izan dezakeen– hizkera-aniztasunak.

Azken erabiltzaileak zentzu batean baino gehiagotan izan daitezke *askotarikoak* edo *elkarren ezberdinak*, bai kulturalki, bai sozialki. Izan ere, posible da pertsona edo gizatalde batentzat une eta leku jakin batean zentzua duenak beste batentzat inolako zentzurik ez izatea. Testuinguruaren arabera errealitateak *nola izendatu*, hau da, *nola aurkeztu* kudeatu behar izaten dute itzultzaileek itzulpenetan.

David Katan Itzulpen Ikasketetako kultur biraketaren osteko autoreen artean koka daiteke, errealitateen zentzua eraikitzeko, hautemateko eta itzultzeko orduan kulturak duen funtsezko rola aldarrikatu izan duelako bere ibilbidean zehar. Haren eremuan, mailaz maila banatuta daude horrelako errealitateak, kontuan izanda jendearentzat zenbateraino diren agerikoak eta zenbateraino jartzen dituzten zalantzan, eta, horregatik, ereduak iceberg itxura du (2009). Hala, hiru maila bereizten ditu, agerikoenetik lausoenera, egiturazko harreman jakinak ezartzen dituen espazio sozial batean kokatuta. Kultura kontzeptualizatzeko modu hori erabilgarria da autorearen ustez, itzultzaileari transferentzia linguistikoko hutsetik zenbat eta noiz urrundu behar den hausnartzeko eta sistematizatzeko balio baitio.

Ageriko errealitate soziokulturalak: jokabidea eta ingurunea

Testuan aipatzen diren errealitateen artean, batzuk errazago identifikatzen dira kultura edo talde sozial jakinekin, eta Itzulpengintzaren Teorian halakoek *kulturema* izendapena jaso ohi dute. Hona zer ageriko errealitate soziokultural aipatu zidaten elkarrizketatuek, zer ordain hautatu zuten kasu bakoitzean, eta erabakiaren azalpena.

	Jatorrizkoa	Xedezkoa	Azalpena
1	Hizkuntza irakasteko liburu batean pertsona bat baso bat ardo eskatzen agertzen zen.	Itzulitako liburuan pertsonak <i>hijaba</i> darama eta beste edari bat eskatzen du.	Itzultzaile eta editorearen aburuz, xede-kulturaren ez litzateke ulertuko <i>hijaba</i> daraman pertsona batek ardoa eskatzea.
2	Bien, todo, tout	ongi / ondo; guzi / guzti	Euskalkia kontuan izatea.
3	<i>aquí, el Estado, el Reino de España, Nafarroa, Iparralde, Euskal Herria, Nabarra «b»-z, Comunidad autónoma, País Vasco, Pays Basque, Euskadi, Uskal Herria (arabieraz idatzita), Bilad du basque.</i>		Lurraldetasuna izendatzeko moduak bezero eta erabiltzaileen arabera kudeatzea.
4	Fuero, foral	Charter vs regional	Tokian tokiko izendapenak politikoki esanahi ezberdinik ote duten adieraztea.
5	Olerkari baten itzulpenean <i>thick translation</i> egitea; alegia, kultur erreferentzia guztiak oin-oharren bidez azaltzea, eta itzulitako beste olerki-liburu batean, berriz, ez.		Kulturemak azaltzea; ohiko estrategia egungo euskal itzulpenetan (argitalpen elebiduna zen, gainera).

4. taula. Kulturemak itzultzeko orduan elkarrizketatuek hautaturiko estrategiak eta haien zergatiak.

Katanek *kulturema* mota interesgarri baten berri ematen du, eta elkarrizketatuek askotan aipatu zidaten: izendapen ikamikatsuak (*terms in dispute*) (2019, 8. or.). Hirugarren adibideari erreparatuz gero, ikus daiteke elkarrizketatuek lurraldetasunaren izendapenak kudeatu behar izan zituztela, hizkuntza edozein izanda ere. Izendapenak *hautatu* behar dituzte, *bat baino gehiago* dagoelako, eta hartzaile ezberdinentzat esanahi ezberdinak dituztelako; alegia, aniztasuna.

Erdi-ageriko errealitate soziokulturalak: egokitza hartzen diren hizkerak

Maila honetan, itzultzaileek ez dituzte hitz edo esapide jakinak hautatu behar, komunikazio-estrategia osoak baizik, erabileraren erabileraz hedatu eta finkatu egiten baitira, eta, hortaz, ezberdinak izan daitezke kultura batetik edo gizatalde batetik bestera.

Hemen, erregistroa eta halakoak kokatzen dira. Askotan, hiztun estandarrak izaten ditugu buruan, testuinguru bakoitzean egokia den hizkera ikasiko zutenak eskolan edo unibertsitatean. Errealitatean, ordea, pertsona zein komunitate bakoitzak hizkuntza-aldaerak bereganatzeko aukerak izan ditu. Hizkuntza gutxituei buruz ari garelarik, berebiziko garrantzia du horrek, batzuetan ez baita existitzen hizkera estandarrik eta hizkera espezializaturik, eta beste batzuetan tradizio laburrekoak direlako; une honetan ari dira *eraikitzen*, ez daude erabat *finkatuta*. Hona hemen elkarrizketatuek kudeatu behar izan dituzten estrategiak:

	Jatorrizkoa	Xedezkoa	Azalpena
1	Hizkera estandarra frantsesez	Iparraldeko euskalkiak erabiltzea herrialdizkarietan eta hizkera sinplifikatzea.	Hiztun adinekoek euskara batua arrotz sentitzea, itzultzaileak kasu horietan Hegoaldean normatibizatzen ari diren estrategiak komunikatiboki arrakastatsuak ez direla iritzita.
2	Hizkera estandarra arabieraz	Testuak bokalizatzea (bokalak idaztea, nahiz ohikoa ez izan).	Irakurleak migratu gazteak izatea eta arabieraren erregistro formala ez ezagutzea.
3	Hizkera estandarra edozein hizkuntzatan	Amazigerara ez itzultzea proposatu, baidik eta ahozko euskarrietan eskaintzea testuak.	Amazigera duela oso urte gutxi hasi da arautzen eta aldaera estandarra garatzen; belaualdi oso gazteek baino ez dute ulertzen.
4	Hizkera espezializatu edozein hizkuntzatan	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa erraza programari jarraitzea • Migratuei teknikarien laguntza eskaintzea, testuok ulertzeko (adibidez, abokatu bat). • Euskarazko estilo-liburuetan azken urteotan komunikagarritasuna bultzatzeko agerturiko irizpideak. • Europako legedian gaztelaniatik itzultzea, baina ingelesaren komunikazio-estiloa begiratuta eta kopiatuta. 	Sektore batzuek erregistro espezializatuak ez ulertzea, erregistro espezializaturako molde ezberdinak garatu nahi izatea.
5	Poesia-testu oso konplexua metafora aldetik, baina ahozko moldeetatik hurbil, ingelesez	Hizkera «gimnastikoa» ez izateko ahalegin handia: metaforak mantendu, baina euskararako ahozkotik hurbil dagoen hizkera bilatu.	Ahozkotik hurbileko moldeak ohikoak ez izatea idatzizkoan.

	Jatorrizkoa	Xedezkoa	Azalpena
6	Ingelesko terminoz betetako hizkera enpresariala-	Gaztelaniazko enpresa-hizkeran ingelesko maileguak barra-barra erabiltzeko estiloari uko egitea, joera <i>garbizalea</i> -.	«Gaztelania ez da ingelesa».

5. taula. «Egokitasuna» itzultzeko orduan elkarrizketatuek hautaturiko estrategiak eta haien zergatiak.

Lehen adibidean ikus daitekeenez, esaterako, Iparraldeko euskal irakurleak askotan adinekoak izaten dira, eta ez dira denak alfabetatuak; beraz, ez daude guztiz eroso idatzizko euskara batua jasotzean edota erabiltzean –molde horrek hamarkada gutxi batzuk baizik ez baititu–, testua frantsesez irakurtzea hautatzeraino. Hala, itzultzaile horrek ahalegin handia egin zuen bere testuak frantsesezkoak bezain estandarrik ez izateko eta euskara baturako normatibizatzen ari diren Hegoaldeko moldeak alboratzeko, Iparraldeko moldeetatik gertuago dagoen hizkera estandar bat erabiliz. Hala egin zuen bazekienean testu horiek herri barruan geratuko zirela eta uste zuenean irakurleak adinekoak izango zirela, hiztun horiek testua irakurri ahal izan zezaten.

Ezkutuko errealitate soziokulturalak: ideologia, sinesmenak, afektibitatea, identitatea

Maila honetan, testuan aipaturiko errealitateak ez dira hain agerikoak, sotilagoak eta kolektiboagoak baizik, eta halakoak maiz *ideologiarekin* lotu ohi ditugu. Katanek (2009) hemen kokatzen ditu, besteak beste, balioak, sinesmenak, efektu subjektiboak, emozioak, konnotazioak eta identitatea bera. Hauek dira elkarrizketatuekin eztabaidaturiko gaiak:

	Jatorrizkoa	Xedezkoa	Azalpena
1	Filosofiako testu baten abiapuntu kontzeptuala frantsesetik egin izana (<i>identique/identité</i>).	Euskararazkoan buruhauste handiak izatea hori itzultzeko.	Leialtasun / ez-leialtasun auzia.
2	Talde-sentimenduz betetako musikari buruzko testua.	Buruhausteak hori itzultzeko.	Xede-hizkuntzan ez funtzionatzea, talde-sentimenduak ezberdinak direlako.
3	Ingelesaz «brown» hitza erabiltzea.	Gaztelaniaz «de color» erabiltzea, baina arazo etiko eta praktikoak sorraraztea.	Gizataldeak izendatzeko arazo etikoak.
4	Jatorrizkoan desgaitasunari zer nolako trataera eman zaion eta gizartearen hori izendatzeko dauden aukerak kontuan izatea itzultzeko.		Gizataldeak izendatzeko arazo etikoak.

6. taula. «Balioak» itzultzeko orduan elkarrizketatuek hautaturiko estrategiak eta haien zergatiak.

Azkenengo bietan ikus daitekeenez, itzultzaileek askotan gizataldeak izendatzeko diskurtsoak kudeatu behar izaten dituzte, eta hizkuntza guztiek ez dute ibilbide bera izan. Onargarritasun sozialaren maila kudeatu behar izaten dute, eta, gainera, terminoen sozializazio-bideak bereziki izan daitezke erronka bat hizkuntza gutxituen kasuan:

[...] Arriskua... arriskua da euskarazko terminoak sozializatu behar direla. [...] Badago klik bat, inflexio-puntu bat, gizarte langileen bulegotik hara, kalera ateratzen denean. [...] Berba berria dagoenean, ez bada bestelako bitartekorik ipintzen, harrikada baten modukoa izan daiteke. [...] Zuk, lasai asko esan ahal duzu *diversitat funcional* eta ulertuko da berdin-berdin eta jarraituko dute aurrera. Baina euskaraz bat-batean *aniztasun*, eta *aniztasun*, zer, zelan esaten da aniztasun. *Aniztasun* gauza berria da e... mendebaldeko euskalkietan! [...]. Berba horiek, gainera, errepikatzen dira: oso inportanteak dira jendeari bidea markatzeko.

Arraza-kategoriari dagokionez ere, elkarrizketatuek giza duintasuna eta lan-hizkuntzeta-ko hitzen onargarritasun soziala kudeatu behar izan dituzte. Filipinetako ingelesezko jaiotza-agirietako *brown* hitza itzultzeko, zinpeko itzultzaileak barne-zalantza handiak izan ohi ditu:

Te voy a contar una cosa que pasa con los certificados de nacimiento. Algunos de Filipinas. En un apartadito te pone *raza*. Y te pone, *brown*. ¿Qué raza es la *brown*? ¿Tú me puedes explicar? ¿Qué raza es esa? Claro, yo, ya... ¿qué pongo? ¿Moreno? ¿De color? [...] Pues pongo... de color. [...] Bueno, aparte... yo hace no mucho leí que lo de la raza es un invento. Que no... eso de caucásico, no sé qué no sé cuánto, que no...

Adibidean ikusten den legez, komunikazio-ekintzaren hartzaillez gain, eskura dituzten diskurtsoak ere kontuan hartzen dituzte itzultzaileek. Ikerketako beste adibide batzuetan, halaber, itzultzaileek aipatu zuten hizkuntza-erabilerarako erreferente diren figurak ere garrantzitsuak direla. Esate baterako, talde horiek euren webguneetan nola izendatzen duten euren burua, edota Europar Batasuneko gidetik eta *Berria* egunkariak zer gomendatzen duten.

Eztabaida gaiak: esanahi soziokulturalen gaineko kontzientzia garrantzitsua ote?

Ikerketa gehiago beharko lirakeen arren halako zerbait baieztatzeko, pentsa genezake ezkutuko maila hori garrantzitsua izan litekeela balioen eta mundu-ikuskeren zaintzari dagokienez, ez baita konnotaziorik gabeko hitzik, Katanek dioenez (2009, 84. orr), eta horrek esan nahi lezake *hitzek* errepikatuaren errepikatuaz *esanahi sozialak gordetzen dituztela*. Bi adibide eztabaidatu ziren elkarrizketatuekin, besteak beste.

Emprendedor eta *ekintzaile* hitzei dagokienez, esan daiteke bakoitzarekin egiten ditugun asoziazioak ezberdinak direla, erabileragatik eta etimologiagatik, RAEren eta Euskaltzaindiaren Hiztegiko sarrerak ikusita. Gaztelaniaz, normalean, konnotazioek ideologia liberalarekin dute zerikusia. Euskaraz, une honetan, aktibismoaren inguruko esanahiari beste bat gehitzen ari zaiola dirudi, gaztelaniazkoaren antzekoagoa, elkarrizketatu batek zioenez: «Klaro, gertatzen

dena da poliki-poliki joaten garela ohitzen, ez? [...] Egia da poliki-poliki ari dela beste kontzeptu horrekin parekatzen, ez?».

Plantea ote liteke itzulpen-fluxuak, hau da, itzultzen diren mezuen norabideak eta kopurua garrantzitsuak izatea? Izan ere, itzulpen errepikatuaren bidez, balioak, kontzeptu semantikoak bezala, hizkuntza batetik bestera igarotzen dira. Ideologia edota esanahi berriek hizkuntza bera aberastu egiten dute, jakina, baina norabidearen maiztasunak ez ote du garrantzirik? Alegia, *ekintzaile* hitzaren esanahia goitik behera aldatzen ari ote dira itzultzaileak, instituzioetako eta enpresetako *empresedor* hainbeste aldiz *ekintzaile* gisa itzultzeagatik, eta ez bi esanahiak bereizita, elkarrizketatu batek esaten zidan bezala? «Zentzu horretan, batzuetan ere eskatzen du euskaraz erabiltzen dugunean, *enpresa-arloko ekintzailea*, ezta?».

Bigarren adibide bat ere eztabaidatu genuen: *lagun* hitza. Euskaraz, *pertsona* hitza dugu norbanakoaz aritzeko, baina badugu *lagun* hitza ere, batez ere zenbatzen ari garenean; adibidez, *zenbat lagun etorri ziren?* esatean. *Lagun* hitza honela definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak: «Norbaitentzat, berarekin jolasean, lanean edo kidekoetan aritzen den pertsona. Ik. kide», eta bai izenondo gisa, bai izen gisa erabil daitekeela adierazten du, «multzo bateko kide bezala».

Euskarara itzultzen duten elkarrizketatuekin aztertu zen ea noiz erabiltzen ote zuten etimologikoki hurbil dagoen ordaina, kasu honetan *pertsona*, eta noiz normalean beste adiera batean erabiltzen dena, *lagun*. Alegia, jakin nahi genuen ea itzulpenerako kontuan izaten ote duten *lagun* hitza *pertsona* adierazteko. Elkarrizketatu batek esan zidan:

Bai, edukitzen ditut zalantzak [...], batzuetan pentsatzen dut: *lau lagun* idazten badut, badakit irakurle batzuek gaizki ulertuko dutela, eta, gainera, seguru nago gaizki ulertuko dutela. Eta beste aldetik pentsatzen dut: baina ez badut idazten galtzen joango da egitura hori, ez? [...] Eta pena ematen dit. Hori galtzea... [...]. Konfliktu handia da. Baina nik normalean *lagun* idazten dut. Eta gero holakotan, nik uste dut gero zuzentzaileek batzuetan egiten dutela segun, haiek ere konfliktu berarekin egiten dute topo, eta nik uste dut irakurlearen arabera bat edo beste jartzen dutela.

Pertsona hitza luze aztertu izan da soziologian, eta erantzun soziologiko eta filosofikoen bila hitzaren etimologiara jo izan dute zenbait adituk; besteak beste, Goffmanek, zeinak unibertso teoriko oso bat eraiki baitzuen abiapuntu linguistikoko hartatik; hau da, gizakiok rola antzetzten ematen dugula bizitza. *Pertsona* latineko *persōna* hitzetik dator, «aktore maskara», «antzerkiko pertsonaia», «pertsonek», «pertsonek», eta hura etruskoko *persu* hitzetik, eta hura grezierako *πρόσωπον* *prósōponetik*, RAEren arabera. Datu horrek esan nahi lezake hitzen etimologiak, maiz, ez direla beti azaleko datu anekdotikoak.

Itzulpenetan sistematikoki *pertsona* erabiliz gero *persona* ikusi orduko, ez ote gara euskararen aldakortasuna pobretzen ari? Zer gertatuko litzateke soziologiaren ikuspuntutik *lagun* hitzaren adiera hori aztertuz gero? Katanen (2019) arabera, itzultzailea ezkutuko maila horretaz jabetzeak berebiziko garrantzia du, eta, beraz, gehiago ikertu beharreko kontua izan liteke.

Icebergetik kanpo: testua gizarte-egiturak erreproduzitzeko edo aldarazteko tresna gisa

Katanen (2009, 2019) ereduaren iceberga espazio sozialean dago kokatuta; alegia, gizartean. Elkarrizketatuen artean maila honetan aipaturiko adibide nagusia generoaren zaintza izan da, gizartean parekidetasuna sustatzeko tresna gisa.

Ondorioak: itzultzaileak, eragile sozialak?

Ikerketaren abiapuntua bi kontzeptu teoriko kontrastatzea zen. Batetik, Euskal Herriko tes-tuinguruan itzultzaileak kultur bitartekariak ote diren, eta, hala bada, noren artekoak. Bestetik, ikuspegi konstruktibista batetik, ea eragile sozialtzat har daitezkeen, eta, hala bada, egiturazko zer faktorek eragiten dien, eta zer faktore eraikitzen dituzten haiek. Adibideen argitan, baiezta genezake itzultzaileak bitartekari izan daitezkeela, eta, aktiboki esku hartzea erabaki dezakete-la gizataldeen komunikazioa bermatzeko, edo, behintzat, bururatzen zaizkiela esku hartzeko proposamenak, itzulitako testuak behar adinako kalitatea izan dezan, betiere aurreko ataletan deskribaturiko egiturazko botere-harremank horretarako aukera emanez gero.

Esku-hartze edo bitartekaritza-lan horrek bi forma nagusi har ditzakeela esan genezake. Lehena, enkarguaren baldintzak negoziatzea, eta, bigarrena, informazioa aurkezteko modurik egokiena zein den erabakitzea, agenteak, ideologiak eta hizkuntza-erabileraren erreferenteak kontuan izanda. Bigarren horiek *bitartekaritza diskurtsibo* izenda genitzake. Izan ere, infor-mazioa aurkezteko modurik egokiena hautatuta, testuak egunero idatziz, gizartearen erreali-tate sinbolikoa eraikitzeko prozesuan parte hartzen ari dira, agenteen artean bitartekari-lanak eginez.

Esan daiteke, halaber, itzultzaileak eragile sozialak direla; izan ere, ikerketak erakusten du rol garrantzitsua izan dezaketela itzultzen ari diren hizkuntzako hiztunen hizkuntza-eskubideak eta informaziorako eskubideak bermatzeko, bereziki hizkuntza gutxituetara itzultzen dutenean, eta bereziki babes instituzional txikia duten egoeretan; esate baterako, Iparraldean. Baita estan-darra ederto ulertzen duen hiztun idealetik urruti dauden hartzaileentzat itzultzen dutenean ere; arabieraren bokalak nola idatzi erabakitzean, esate baterako, edo itzulpenen ordezt ahozko moldeak proposatzen dituztenean (wolfoera eta amazigera hizkuntzetan, adibidez). Hala, talde ezberdinen arteko komunikazio arrakastatsua bultzatzea eragin dezakete.

Azkenik, kalitate-irizpideak defendatzeak esan nahi lezake hiztunen arteko *ezberdintasunak existitzea* defendatzen ari direla. Inportantea da zer ordain hautatzen duten, itzultzeko modu bakoitza komunikazioaren ikuspegitik ezberdina baita hiztun bakoitzarentzat. Hortaz, informazioa aurkezteko modua zaintzen dutenean, kultura-, hizkuntza-, ideologia-, hiztun- eta talde-aniztasuna zaintzen ari direla pentsa daiteke.

Itzultzaileak ez daude bakarrik, ez, gizarte globalizatu honetan: talde-lanean ari dira, eten-gabeko komunikazio-fluxu dinamikoan parte hartzen duten hainbat eragilez inguratuta. Eta, gainera, ardura ederra dute. Mundu-mailan hizkuntzak eta mundu-ikuskerak galtzen ari diren garaioan, ez da ardura makala, baina bai ederra.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AGUILAR SOLANO, M. (2020). «Triangulation and Trustworthiness—Advancing Research on Public Service Interpreting through Qualitative Case Study Methodologies». *FitisPos International Journal*, 7, 1, 31.-52. or. <https://doi.org/10.37536/FITISPos-IJ.2020.7.1.249>
- BERGER, P. L., & LUCKMANN, T. (1968). «Teorías de la identidad» in *La construcción social de la realidad* (214.-225. or.). Amorrortu.
- CHESTERMAN, A. (2007). «Bridge concepts in translation sociology» in M. Wolf & A. Fukari (arg.), *Constructing a Sociology of Translation*, Benjamins Translation Library (74. lib., 171.-183. or.). John Benjamins Publishing Company. <https://doi.org/10.1075/btl.74.12che>
- CORCUFF, P. (2013). «Capítulo 3: Construcción de los grupos y categorización social» in *Las nuevas sociologías. Principales corrientes y debates, 1980-2010*. Editorial Siglo XXI.
- CRUCES COLADO, S., PARADA, A. & DÍAZ FOUQUES, O. (2003). «Sociología de la traducción: Esbozo conceptual», in Martín Muñoz, R. (arg.), *I Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación (AIETI)*, Granadako Unibertsitatea, 1 lib., 45.-56. or. AIETI.
- GOFFMAN, E. (1975). *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience*. Harvard University Press.
- KATAN, D. (2009). «Translation as Intercultural Communication» in *The Routledge Companion to Translation Studies* (74.-92. or.). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203879450>
- KATAN, D. (2019). «In Defence of the Cultural Other: Foreignisation or Mindful Essentialism?» in B. Lewandowska-Tomaszczyk (arg.), *Contacts and Contrasts in Educational Contexts and Translation* (119.-142. or.). Springer International Publishing. https://doi.org/10.1007/978-3-030-04978-2_8
- MOSSOP, B. (2009). «Positioning Readers». Brian Mossop's Translation Page. <http://www.yorku.ca/brmossop/Nida.htm>
- PYM, A. (2018). *Translation and text transfer: An essay on the principles of intercultural communication*. Intercultural Studies Group. http://usuaris.tinet.cat/apym/publications/TTT_2010.pdf
- VENUTI, L. (Ed.). (1992). *Rethinking Translation: Discourse, Subjectivity, Ideology*. Routledge. <https://www.routledge.com/Rethinking-Translation-Discourse-Subjectivity-Ideology/Venuti/p/book/9781138361874>

WOLF, M., & FUKARI, A. (2007). *Constructing a Sociology of Translation*. John Benjamins Publishing Company.

Resumen

¿Qué función ocupa la labor de traducción en la comunicación entre los distintos grupos sociales y culturales? En el artículo se exponen algunas de las formas en que las traductoras ejercen el rol de mediadoras en Euskal Herria. En base a las experiencias de una pequeña muestra de 9 traductoras, se describe el contexto profesional de la traducción en Euskal Herria, en concreto, algunas negociaciones y relaciones de poder existentes entre solicitantes, traductoras y receptores. Por tanto, este pequeño estudio cualitativo es un trabajo de sociología de la traducción. Los datos expuestos muestran que efectivamente se puede considerar que las traductoras ejercen al menos dos tipos de mediación, alegando que el texto debe tener la calidad «suficiente». Es decir, avaladas por discursos sobre la ética profesional, contribuyen a la comprensión intergrupala.

Résumé

Quel rôle joue la traduction dans la communication entre les différents groupes sociaux culturels ? Cet article présente quelques-unes des façons dont les traductrices jouent le rôle de médiateurs au Pays basque. A partir de l'expérience d'un petit échantillon de 9 traducteurs, on décrit ici le contexte professionnel de la traduction au Pays basque à travers la communication entre les différents acteurs, notamment certaines négociations et relations de pouvoir entre clients, traductrices et destinataires. Cette courte étude qualitative est donc un travail sociologique de la traduction. Comme le montrent les exemples présentés ici, on peut avancer que les traductrices exercent au moins deux types de médiation, en alléguant que le texte doit avoir une qualité « suffisante ». C'est-à-dire que les discours sur l'éthique professionnelle contribuent à la compréhension entre les groupes.

Abstract

What role does translation play in communication among different social and cultural groups? This article explains some of the ways in which translators exercise the role of mediators in the Basque Country. Based on the experiences of a small sample of 9 translators, the professional context of translation in the Basque Country is described, specifically including some of the negotiations and power relations among commissioners, translators and recipients. Thus, this small qualitative study is a work on the sociology of translation. The presented data show that translators can be considered to exercise at least two types of mediation in claiming that the text must be of "sufficient" quality. That is, supported by discourses on professional ethics, they contribute to intergroup understanding.